

## **Martxoko gogoeta 2020**

Martxoaren zortziak beharrezko izaten jarraitzen du, eta horregatik, gaur, Don Jose Mariak emakumeari buruz egindako gogoeta batekin hasiko gara, berezi identifikatzen baikara horrekin:

**“Emakumearen posizioa da, gizarte guztietan, bere garapen mailaren neurri zehatza.” (p 66)**

Gogoetak berritasun bat dakar, garapenaren kontzeptuari “emakumeak gizartean duen posizioa” gehitzen diolako, hau da, izaera sozialeko aldagai bat, izaera ekonomikoko beste batzuk baztertuz, guztiak ere kuantitatiboak izanik, esaterako, KPIa, per capita errenta eta abar, zeinak garapena neurtzeko indizetzat jotzen diren unibertsalki.

Don Jose Mariaren gogoetetan 12 erreferentzia ere jaso ditugu emakumearen posizio sozialaren inguruan; hauek dira horietako batzuk:

**“Gizonak eta emakumeak elkarren beharra dute jarduera eta gizakiaren bizitzaren maila guztietan, eta, ondorioz, gizartean emakumearen laguntzarik gabe aurrera egitea da hanka bakarrez korrika egin nahi izatea” (p 73)**

**“Lanaren balioak ez du sexuarekin zerikusirik” (p 288)**

**“Gure herria gizakiaren presentzia bakarrarekin ahuldu egiten da” (p 56)**

Arretagunetzat emakumea hartzen duten gogoeta batzuk gizonak emakumea zein posiziotan kokatu duen aztertzerako datoz, gizona gizartearen, hierarkien definizioaren eta balioen diseinuaren erantzulea den heinean. Baita ere aipatzen du emakumeak zailtasunak dituela gizartean duen posizioa deskubritzeko, gizartearen antolamenduan rol ahaltsua jokatzen duenaren agintepean jardun behar izateak eragin dion karga historikoagatik.

**“Gizonok ez dugu eskubidea, zehatzago esanda, ez dugu behar besteko arrazoi morala emakumeen portaera kritikatzeko, gu geu gara-eta gizartea hala antolatu dugunok emakumeak konpartsa zeregina baino izan dezaten, eta, politago edo zatarrago, apaingarri baino izan ez daitezen gizartearen erregea, gizona, pozik uzteko” (p 69)**